



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

ALKARTE ABEGITSUAK

AURKEZPENA



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

«ADISKIDE ETA SENIDE, COMUNIDADES ACOGEDORAS»

Fratelli tutti, entziklikaren bidez, Frantzisko aita santuak dei egiten deutso mundu osoari herritarren arteko senidetasuna eta adiskidetasuna sustatzeko. Aita santuak gizadiaren kontzientziara jo eta oihu ozen eta indartsua egiten dau. Mundua galduta dago, noraezean. Historiak atzera egin dau. Makina bat amets zapuztu da. Bazterketa eta banaketa dakarren hesiak jaso dira. Itzalak handitu egin dira (FE, 9-55). Sasi-agintzari eta ziurgabetasunen erdian, Frantziskok funtsezkoa gogoratzen deusku: gizon eta emakumeen duintasuna. Fratelli tutti, gizarte senidetasun eta adiskidetasunaren gainean gizadi osoaren bizikidetzeta eta norabidea berregiteko deia da (FT, 2).

“Adiskide eta Senide, Comunidades Acogedoras” ekimen honek 2021ko Garizuma-Pazko aldi honetan Fratelli tutti entziklikak egiten dauan deia entzuteko eremua eskaini gura dau. Alkartean entzun, otoitzetik, bihotz-barrizera, konpromisoa hartzera, Berbizkundearen itxaropenera zabalik.

SENIDETASUNA “BESTEEKIN”

Aitatzen dauan senidetasuna ez da “gu” horrena, hurkoena, familiarena, taldearena edo nazinoarena, “geografia eta espazioaren hesietatik harago” (FT, 1) doan senidetasuna da. “Besteekiko”, pertsona ahulekiko, baztertuekiko, kanporatuekiko, etorkinekiko senidetasuna da. Eurok dira senidetasun eta gizarte adiskidetasunak aurrez aurre dauan benetako erronka



Senidetasuna, kristautasunaren funtsezko oinarria da. Jainko gure Aitarenganako fedearen bidez, gizon eta emakume guztiok seme-alaba eta bardin gara, anai-arreba Kristo Jesusengan. Ilustrazioak be aitaten dau senidetasuna: askatasuna, bardintasuna eta senidetasuna, baina askatasuna eta bardintasuna lehenesten dira. Hain zuzen be, giza eskubideen adierazpena (1948), bardintasun eta askatasunean oinarritzen da, baina senidetasunaren oinarria ahaztu egiten dau. Giza eskubideen ikuspuntua “babes-erakoa” da, hau da, errespetatu beharreko bakarkako -edo taldeko- bardintasun eta askatasunerako gitxieneko baldintzak zehazten ditu. Senidetasunak beste urrats bat emoten dau, “proaktiboa” da, anai eta arreben aldeko jarrerak garatzera eta jokatzera behartzen daualako. Non da zure anaia? (Has). Senidetasuna, kristau etikaren oinarritzko printzipioetako bat da, proaktiboa da eta bestearen ona bilatzen dau.

NOR DA LAGUN HURKOA? HURRERATZEN DANA

Fratellitu tti entziklikak luze eta zabal dihardu samariar onaren parabolaz (FT 61-86), idazkiaren atal nagusia beretzat dalarik. Ebanjelioko pasarte honetan, lagun hurkoarenganako, gertukoarenganako maitasunaz ez ezik, bestearengana, arrotzarenengana, etorkinarenengana, behartsuarenengana, biktimarenengana hurreratzeaz ari da. Hau da, norbere ibilaldia, egitaraua, logika eteteaz, bidean aurkitutako bestearen beharrianari erantzuteko.

Ikuspuntu honetatik irakurri behar dogu Fratelli tutti entziklikaren gizarte senidetasun eta adiskidetasunerako proposamena. Gizarte senidetasun eta adiskidetasunaren ebaluazinerako erizpidea, bere irismena da: noraino zabaltzen da besteak anai eta arreba lez autortzeko dogun gaitasuna? Aita Santuak aparteko arreta jarten dau etorkinengan, gure taldearen barruan ez dagozanengan. “Behartsuen, baztertuen, gaixoen, kanporatuen, azkenen bidelagun” (FT, 2) izateko konpromisoa hartu eban Asisko San Frantzisko jarten dau eredutzat, “jatorri, herritartasun, kolore edo erlejino urruntasunetatik harago joteko gauza dan bihotza” (FT, 3) erakutsiz.

BATEGITEA, OSOTASUNERAKO BIDE

Desbardinak eragindako bildurrean oinarritutako “harresien kulturari” (FT, 27) “bategitearen kulturagaz” aurre egin behar deusagula dinosku entziklikak, gizon eta emakume guztiok barrero alkarregaz amets egin daigun (FR, 8), “gizadiaren ahalmena” bere osotasunean agertu daiten beste pertsona batzuekatzko hartu-emonaren bidez (FT, 150). Besteagaz bat egiteak gure giza izatearen osotasun jadesteko ezinbesteko diran hiru ekintza gauzatzera garoaz:

- lagun hurkoa, bestea, desbardina, pertsona ahula, kaltetua, ezintasunen bat dauana... maitatu, aurreretxiak apurtuz, emoten dan maitasuna giza osotasuna jadesteko biderik onena dala sinistuta;
- gizatasunean hazi, aniztasunaren aberastasunaz bustiz, harreman-alderdia gure bizitzaren osagai lez osotasunean garatuz, Aita, Semea eta Espiritua batasun hirukoiztarraren imitazioan aurreratuz (FT 85, 133-136);
- Jesukristogaz bategitea bizi, txirotuak “Kristoren bikario” (Juan Krisostomo) diranez. “Nire seniderik txikien honeetako edozeini egin zeuntsena, neuri egin zeunsten” (Mt 25, 31-46). Beste lagunagaz bat egitean, Besteagaz bat egingo dogu.

Besteagaz bat egiteak dakarskuzan aukeretan benetan sinistuko bagendu, ez geunke betebeharrak lez hartuko, eta beste horren bila aterako gintzatekez Jainkoaren benetako graziazat, gizatasunean hazteko aukeratzat hartuz.

ADISKIDE ETA SENIDE, BIDERA URTETEN DIRAN ALKARTE ABEGITSU

Adiskide eta senidez osatutako alkarre abegitsu izatea, gure alkarreak pertsona eta familia desbardinei zabaltzeko deia da, baina ez hori bakarrik. Kontua ez da bestea noiz iritsiko zain egotea, norbere ekimenez, eta eraginkor izateko senez, bestearen bila ataratea baino. Samariar onaren parabolaren esaten danez, norke bere betebeharrak, lana, bizitarako egitasmoa, eten egin behar dauz, bidean aurkitutako bestearen beharizanari erantzuteko.

Harremana, alkartasuna, bategitea gauzatzeko, alkarrearen ospakizuna egiteko erak aldatu egin behar doguz, hain zuzen be, pertsona guztiok bardin izan gaitazan eta danok Jaunaren alkartasunaren barruan gagozala sentitu daigun.

Frantzisko aita santuak lau aditz darabilz etorkinen inguruan jarduteko: Hartu, Babestu, Sustatu eta Gizarteratu. Horixe da europar gizarteei egiten deutesen deia. Arren eskatzen dau herritarren, alkarteen eta erakunde politikoen senide erantzukizuna. Dei egiten dau, “gure herritar bokazinoa berragertu daiten”, “gizarte lokarri barriaren” eta “guztion onaren” egile eta eragile lez. Desbardintasuna, banaketa eta kanporatzea hedatuta dagozanean, “mundu irekia pentsatzean eta sortzean” datza eta geure eleiz esperientziatik ze ekarpen egin daikegun ikustean (FT, 87 eta hur.).

GURE AURKAKOTASUNAK



Aurkakotasunak be bistakoak dira. Beharrizanean dagozanez, aurkitzen ete dabe euren etxea Bizkaiko Eleizaren kristau alkarteetan? Ala, alderantziz, harrerarik eza aurkitzen ete dabe, ala anonimotasun eta bakardadetik atarateko bide diran topaguneen falta, fedea ospatzeko bestelako erak (gureak hotzagoak dira eta ez dabe bategite pertsonalerako aukera asko emoten...), erreferentzia izan daitekezan eleiza gehienak egunero itxita,...?

Frantzisko Aita Santuak “abian dan Eleiza” izatera deitzen gaitu eta horrek gure alkarteek besteei eskaintzen deutesen pastoral erantzuna barriz pentsatzera eroan behar gaitu. Erantzun horrek alkarte abegitsuak, beroagoak sortzen lagundu behar deusku, hau da, hurreratzen diran pertsonak hartzeko, entzuteko, babesteko eta barnean hartzeko gauza diran alkarteak, beharrizanean dagozanean aurrean bereziki sentibera diran alkarteak. Hurreratzen diran pertsonak etxean lez sentitzen badira, hartu eta entzun doguzala-eta hunkituta sentitzen badira, orduan izango gara alkarte abegitsu, adiskide eta senidez osatutako alkarte.

ALKARTE BARNERATZAILEAK, ELEIZA BARRIA

Honetan datza alkarte barneratzaile izatea: gizon eta emakumeok, edozein izanda be jatorria, kultura, gizarte-ekonomia egoera, sexu-joera, familia egoera,... alkartearen bizitzan bete-betean jardun daigula alkar aberasteko eta lankidetzat emonkorreko jardunbidea sortuz, munduaren eta besteen ikuspuntua zabaldu daigun. Eleizaren katolikotasuna da. Esperientzia honetan, Eleiza barria, gaztea, sortuko da Jeseren enbor zaharretik. Horretarako, ezinbestekoa da entzuteko gaitasuna, enpatia bestearen onarpena, baldintzarik eza, konfiantza eta osoko giza garapena lantzea eta garatzea. Aniztasunaren kudeaketa ganoraz egin behar dogu, egundoko aukeratzat hartuz. Desbardinak dei egin eta erantzuna eskatzean egiten deuskun erronka onartu, ikasteko, hazteko eta alkar aberasteko prozesua sortu, azken batean, alkarte ireki, barneratzaile eta abegitsu, hau da, alkarte katoliko izateko.

Alkarte barneratzaileek kulturen trukea eta mestizajea ahalbideratzen dabez. Beste kultura eta gizarte batzuetatik datorren esperientzia erlijiosoa elikagarri, bizigarri barria da. Besteen giza esperientzia eta esperientzia espiritualak, Jainkoaren bizipenak, eta gureak bat egiten dabenean, alkar aberasten dabe eta Eleizaren bizitzaren barritzea eragiten dabe Jaunaren Espirituarengan.

‘FRATELLI TUTTI / ADISKIDE ETA SENIDE’, GARIZUMA ALDIRAKO LAGUNGARRIAK ETA BERBALDIAK

Bilboko Eleizbarrutiak hainbat lagungarri eta baliabide eskaini gura dau Garizuma aldian gure alkarte eta taldeetan lantzeko. Frantzisko Aita Santuaren **Fratelli Tutti** entziklika oinarritzat hartuta eta **adiskide eta senidez osatutako alkarte abegitsu** izateko helburuagaz aurkezten da proposamen hau:

- Adin bakotxeko (umeak, nerabezaro aurrekoak, nerabeak, gazteak eta helduak) taldeei beren-beregi eurentzat prestatutako lagungarriak bideratuko jakez eta otsailaren 17an, Hausterre egunez, argitaratuko dira **www.bizkeliza.org** web orrialdean
- Gainera, otsailaren 22tik aurrera, astero, web orrialde berean Garizuma aldiko berbaldien bideoak deskargatzeko aukera izango da. Hain zuen be, bideo honeek: (1) Imanol Zubero, (2) On Joseba Segura gotzaina, (3) otoitz lagungarriak eta (4) esperientzien mahai-ingurua. Pastoral Barruti bakotxak, taldeak, e.a, bideo eta lagungarri honeez baliatuz, Garizuma aldiko batzarrak (lau) antolatu daizala da helburua. Aitatutako baliabide horreei domeketako ospakizunetarako liturgia lagungarriak gehitu behar jakez.

Dei egiten deutsegu alkarte eta taldeei, Garizuma aldi honetan **“Comunidades acogedoras. Adiskide ta senide”** lagungarriak landu daiezan, danon artean senidetasuna eratzen eta amesten jarraitu daigun.